**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA**
**(18.10.16)**

INGURUMEN ZINEGOTZIA:
JOSÉ LUIS LANDA jn.

INGURUMENEKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

HIRIGINTZA PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA
ARGIÑE ENCINAS and.

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

BERTARATUTAKOAK:

JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona)
DIMAS RAMOS jn. (Kirol elkarteak)
KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Alkarteko ordezkaria)
TXARO ARCENIEGA and. (Basozaleakeko ordezkaria)
CARLOS ARANA jn. (Sarekideko ordezkaria)
JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria)
XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona)
MIGUEL ANGEL ROGGERO jn. (Itxartu Taldea),
ANDEKA ZUBIAUR jn. (Eskola Agenda 21 Aixerrota Eskola)
JON ANTON jn. (Ingurumen Aretoa Getxo)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute: JOSEBA ARREGI jn. (Hirigintza zinegotzia), CELIA MARAÑON and. (Ekologistak Martxan), JAVIER GALÁN jn. (GetxoEnpresako presidentea) eta NATIVIDAD MORALES and. (Gizatiarreko ordezkaria).

Getxon, 2018ko urriaren 16an, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

**GAI ZERRENDA**

Bileraren hasieran, Eugenia Atin arestian esandako Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela aipatu du eta gai zerrenda aurkeztu du.

Eugenia Atinek Argiñe Encinas aurkeztu du, Getxoko Udaleko arkitektoa, HAPOren Aurrerapenaren egoeraren berri emango duena. Jarraian aurkezpen erronda bat egin da, mahaikideak ezagutzeko.

**1.- Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO)-**

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE**
**(16.10.18)**

CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSÉ LUIS LANDA

TÉCNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:
Dª ARANTZA CABEZA

PLANEAMIENTO Y GESTIÓN URBANÍSTICA
Dª. ARGIÑE ENCINAS

CONSULTORA:
Dª EUGENIA ATIN

ASISTENTES:

D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad)
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas)
D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Personas Consumidoras y Usuarias Vasca)
Dª TXARO ARCENIEGA (Representante de Basozaleak)
D. CARLOS ARANA (Representante de Sarekide)
D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak)
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)
D. MIGUEL ANGEL ROGGERO (Itxartu Taldea)
D. ANDEKA ZUBIAUR (Agenda Escolar 21 Aixerrota)
D. JON ANTON (Aula Medioambiental de Getxo)

Excusan su no asistencia: D. JOSEBA ARREGI (Concejal de Urbanismo), Dª CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan), D. JAVIER GALÁN (Presidente de Getxo Enpresa) y Dª NATIVIDAD MORALES (Representante de Gizatiar).

En Getxo, a 16 de octubre de 2018 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados y presenta el orden del día.

Eugenia Atin presenta a Argiñe Encinas, Arquitecta del Ayuntamiento de Getxo que dará a conocer el estado de la situación relativo al Avance del PGOU. A continuación se hace una ronda de presentaciones para conocer a los miembros de la mesa.

**1.- Sesión de participación del Avance del Plan General de**

**aren aurrerakinean parte hartzeko saioa.**

Argiñe Encinasek, Udaleko arkitekto eta hirigintzaren plangintzaren eta kudeaketaren arduradunak, aurkezpen bat egin du.

Argiñe Encinasek aurrekariak aurkeztu dizkigu, eta azaldu digu indarrean dagoen HAPO 2001ekoa dela, eta hura berrikustea prozesu luzea dela, behin betiko onartu arte hainbat fase izango dituena. 2011n hasi ziren aurreko lehen ikerketak, eta 2013 eta 2015 artean lehenbiziko parte hartze prozesua egin zen; hainbat aukera proposatu ziren, Aurrerapenaren dokumentu teknikoan jasotakoak. 2 urteko geldialdia eta gero, HAPOren berrikuspenari berriz heldu zitzaion, aukera horiek eguneratuta eta herritarren parte hartze prozesu publiko bat eginda, plan orokor berriaren irizpideak eta helburuak zehazteko. Horietan oinarrituta idatziko da hurrengo HAPO, hasierako, behin-behineko eta behin betiko onarpenen faseetan zehar.
2015ean dokumentazio luzea idatzi zen, 7 liburukitan jaso zena, eta aurten laburpen exekutibo batean laburtu da, herritarrengana iritsi ahal izateko, 30 orrialdeko dokumentu bakarrean.

Orain, herritarren parte hartze prozesua itxi berri dago. Informazioa emateko eta herritarrek parte hartzeko hainbat saio egin dira, Romon, Villamonten eta Andra Marin, eta bertan planaren Aurrerapenaren edukien berri eman da, uztailaren eta urriaren artean, aurkezpenen, hitzaldi informatiboen eta eztabaida saioen bitartez.

HAPOk lurzoruaren erabilerak arautzen ditu, eta hura sailkatu egiten du, hiri lurzoruan, urbanizagarrian eta ez-urbanizagarrian. Erabilera ere kalifikatzen du (bizitokirakoa, jarduera ekonomikokoa, zuzkidurazkoa eta abar), baita kopurua ere (eraikigarritasuna).

- Hiri lurzorua da jada eraldatutako lurra, egungo hiri sarean integratutakoa edo integragarria dena. Auzoak, bertako eraikinak, plazak eta parkeak barne, hiri lurzoruaren parte dira.
- Lurzoru ez-urbanizagarria da hiri garapenaren bitartez eraldatu ezin den udal lurzorua. Landa ingurua, natura ingurua eta abar.
- Lurzoru urbanizagarria da hiri sarean integratu gabe dagoen eta oraindik bertan integratu ezin den udal lurzorua, egokia dena hirigintza erabilerarako oinarri izateko, aurrez hirigintza eraldaketa jasaten badu.

Aurreko ikerketen eta aurreaurrerapenaren aurreko faseetan adostasun handiena lortu duten gaiak kontuan hartuta, HAPO berriak apustua egin behar du eredu trinko eta misto baten alde, hiri lurzorua indartuko duenaren, lurzoruaren erabilerak arrazionalki eta modu jasangarrian integratuko duenaren eta auzo eta biztanle talde guztien kohesio soziala erraztuko duenaren alde.

Udal eredu berri horren barruan, hainbat aukera ikertzen ari dira orain: lau, aurreko parte hartze prozesuaren emaitza izan ziren (L1-L4), eta beste hiru, pare bat aldaerarekin, jatorri teknikokoak dira (T1-T3'). Horietako bakoitzak antolamendu bat proposatzen du (etxebizitza kopurua, gune libreen azalera, jarduera

**Ordenación Urbana (PGOU) de Getxo**

Exposición a cargo de Argiñe Encinas, arquitecta del Ayuntamiento y responsable del planeamiento y gestión urbanística.

Argiñe Encinas nos pone en antecedentes explicando cómo el PGOU vigente es de 2001 y su revisión consiste en un proceso largo, con varias fases hasta su aprobación definitiva. En 2011 comenzaron los estudios previos y entre 2013 y 2015 tuvo lugar un primer proceso participativo que culminó en diferentes alternativas recogidas en el documento técnico de Avance. Tras un parón de 2 años, en 2018 se retoma la revisión del PGOU con la actualización de las alternativas y un proceso participativo público para definir los criterios y objetivos del nuevo Plan General. En base a éstos se redactará el futuro PGOU, a lo largo de las fases de aprobación inicial, provisional y definitiva.

En 2015 se redactó una extensa documentación repartida en 7 tomos que este año se ha resumido en un resumen ejecutivo para poder llegar a la ciudadanía a través de un único documento de 30 páginas.

En la actualidad se acaba de cerrar el proceso de participación ciudadana. Se han hecho sesiones de información y participación pública en Romo, Villamonte y Andra Mari, dando a conocer los contenidos del Avance del plan, a través de exposiciones, charlas informativas y sesiones deliberativas que han sucedido entre los meses de julio y octubre.

El PGOU regula los usos del suelo y lo clasifica en urbano, urbanizable y no urbanizable, califica el uso (residencial, actividad económica, dotacional...) y la cantidad (edificabilidad).

- Suelo urbano son los terrenos ya transformados, que estén integrados o sean integrables en la trama urbana existente. Los barrios, con sus edificios, plazas y parques forman parte del suelo urbano.
- Suelo no urbanizable es el suelo municipal en que no procede que sea transformado como desarrollo urbano. Es el entorno rural, natural, etc.
- Suelo urbanizable es el suelo municipal que, no estando integrados en trama urbana ni siendo aún integrable en ella, se considera idóneos para servir de soporte, previa su transformación urbanística, a usos urbanísticos.

El nuevo PGOU, considerando las cuestiones con mayor consenso de fases anteriores de estudios previos y pre-avance, debe apostar por un modelo compacto y mixto que potencie el suelo urbano, integre racional y sosteniblemente los diferentes usos del suelo y que favorezca la cohesión social en todos los barrios y grupos de población.

Dentro de este nuevo modelo de municipio, actualmente se estudian diferentes alternativas: cuatro resultaron del proceso

ekonomikoak eta abar). Horrez gain, bi proposamen jaso dira: bata, Andra Mari Gure Lurra elkarteak egindakoa, eta, bestea, Ingurumeneko Tokiko Foroak egindakoa.

Bederatzi aukerak 2018an eguneratu dira, orain dela gutxi egindako eraikinen eta egungo hirigintzaren arloko legediaren arabera. Hain zuzen, HAPOk baldintzatzaile ugari ditu, udalaren gaineko administraziotik datozenak, eta HAPOk horiek integratu behar ditu.

Zehazkiago, HAPOk proposatu ditzakeen etxebizitza berrien kopurua udalaren gaineko araudiaren mendean dago (Bilbo Metropolitarraren LAG eta LPP). Aipatu beharra dago egun indarrean dagoen planak, 2001ean onartutakoak, 84.500 biztanleko populazioa hartu zuela abiapuntu moduan, eta 5.000 etxebizitza berri programatu zituela, dentsitate txikiagokoak eta lurzoru urbanizagarriaren azalera handiagoa hartzen zutenak. Udalerriko lurzoru guztia agortzen zuten. Hain zuzen ere, 2001ean, legeak aukera ematen zuen etxebizitzak gaur egun baino dentsitate txikiagoz eraikitzeko. Dentsitate baxuko hirigintza eredu horrek ez du betetzen gaur egungo araudia, eta, horrenbestez, kontuan hartu behar da HAPO berria garatzeko.

Gaur egun ez dira garatu 2011ko planak proposatzen zituen lurzoru urbanizagarriko guneak, eta plan berriaren aukera guztiek udalerriaren iparraldeko lurzoru urbanizagarriaren zati handi bat desklasifikatzen dute, eta eskuragarri dagoen lurzoru urbanizagarria osatzea proposatzen dute (bizitoki erabilerarekin, gune libreekin eta/edo hornidurekin, aukeraren arabera). Lurzoru natural gutxiago hartzea da helburua, erabilerak eta jarduerak nahastea, udalerri eredu trinko bat, eta mugikortasun aktiboa (oinez eta bizikletaz) eta garraio publikoa sustatzen duena.

Aurrerapenean deskribatutako antolamendu aukeretako bakoitzak HAPOk programatu beharreko etxebizitzen kopuru bat proposatzen du, baita horiek non kokatu ere.

Etxebizitzaren gaiaren helburu nagusia da herritarren etxebizitza beharrak asetzea. Getxok 6.000 biztanle galdu ditu 2001 eta 2018 artean, eta gazteentzako etxebizitza beharra dago: horietako askok erabakitzen dute gertuko herrietara bizitzera joatea. Ezin dugu ahaztu urbanizatu ahal izateko, behar sozial bat egon behar dela, legez.

Gaur egun, plan berriak hainbat aukera aurreikusten ditu, bizitoki garapen berrietarako etxebizitzen kopuru eta kokapen ezberdinak dituztenak. Kopurua Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG, Eusko Jaurlaritza) baldintzapean dago. Horiek ezartzen dituzten gutxieneko eta gehieneko balioak.

Jarraian, Foroko kideak *hall*era irten dira, aukeren panelak ikusteko eta Argiñe Encinasen planoen azalpena entzuteko.

Lehen panelek Aurrerapenean ezarritako zazpi aukeren planoak dituzte (bederatzi, T-2’ eta T-3’ osagarriekin). Aurrerapenaren dokumentazioa osatzen duten aukeren barruan jaso dira Lantalde

participativo anterior (L1-L4) y tres más, con un par de variantes, de origen técnico (T1 - T3’). Cada una de ellas propone una ordenación (número de viviendas, superficie de espacios libres, actividades económicas, etc.). Además, se recogen dos propuestas: una formulada por la asociación Andra Mari Gure Lurra y otra por el Foro Local de Medio Ambiente.

Las nueve alternativas se han actualizado en 2018, en función de las nuevas edificaciones de reciente construcción, y la legislación urbanística actual. Efectivamente, el PGOU cuenta con numerosos condicionantes que provienen de administraciones supra-municipales y que el PGOU debe integrar.

Concretamente, el número de nuevas viviendas que el nuevo PGOU puede proponer está sujeto a normativa supramunicipal (DOT y PTP del Bilbao Metropolitano). Cabe mencionar que el plan vigente en la actualidad, de 2001, partía de una población de 84.500 habitantes, y programaba unas 5000 viviendas nuevas, con unas densidades menores y una mayor extensión de suelo urbanizable, agotando todo el suelo del municipio. Efectivamente, en 2001 la ley permitía edificar vivienda con unas densidades inferiores de lo que se permite ahora. Este modelo urbanístico de baja densidad no cumple con la actual normativa y por lo tanto se debe tener en cuenta a la hora de desarrollar el nuevo PGOU.

A fecha de hoy no se han llegado a desarrollar las áreas de suelo urbanizable que proponía el plan de 2011 y el nuevo plan, en todas sus alternativas, desclasifica una gran parte de suelo urbanizable al norte del municipio y propone completar el suelo urbano existente (bien con uso residencial, de espacio libre y/o equipamental, según las alternativas). Se busca una menor ocupación del suelo natural, propiciando la mezcla de los usos y actividades, un modelo de municipio compacto y la movilidad activa (peatonal y en bicicleta) y en transporte público.

Las alternativas de ordenación descritas en el Avance, desarrollan y concretan cada una de ellas una propuesta de número de viviendas a programar por el PGOU y los ámbitos donde situarla.

El tema de vivienda pretende, en primera instancia, satisfacer las necesidades de vivienda de la población. Getxo ha perdido 6000 habitantes entre 2001 y 2018, y tiene una necesidad de vivienda para personas jóvenes, muchas de las cuales optan por ir a vivir a los municipios cercanos. No debemos olvidar que para poder urbanizar, por ley, debe existir una necesidad social.

El nuevo plan contempla actualmente diferentes alternativas con diferente cuantificación residencial y ubicaciones para nuevos desarrollos residenciales. La cuantificación queda condicionada por las Directrices de Ordenación del Territorio (DOT, del Gobierno Vasco), que establecen valores mínimo y máximo.

A continuación los miembros del Foro salen al hall para ver los paneles con las diferentes alternativas y recibir por parte de Argiñe Encinas, la explicación pertinente de los planos.

lau aukerak eta talde idazleak proposatutako hiru aukera teknikoak, T2-T2' eta T3-T3' aukeren bi aldaerekin.

Lantalde da Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko duen tresna. Bere garaian, 70 pertsona inguruk osatutako Lantaldea sortu zen, eta hainbat saiotan hirigintza garapenerako 4 aukera eratu zituzten:

**L1 aukera**
- Egungo hiri lurzoruaren perimetroa mantentzea.
- Egungo eraikin multzoaren aukerak maximizatzen ditu, okupatu gabeko etxebizitzak eskuragarri jarrita, eta etxebizitzak banatzea, teilatupeak etxebizitza bihurtzea eta erabiltzen ari ez diren baserriak edo etxebizitzak birgaitzea erraztuta, hiri lurzoruko garapen berririk planteatu gabe.

**L2 aukera**
- Egungo hiri lurzoruaren perimetroa mantentzea.
- Taldea, beste behin, hiri lurzorua betetzea eta lurzoru urbanizagarria ez klasifikatzea.

**L3 aukera**
- Lurzoru urbanizagarriaren hazkunde mugatua.
- Egikaritze unitate batzuk garatzean datza, lur urbanizagarria klasifikatu gabe.

**L4 aukera**
- Lurzoru urbanizagarria handitzea.
- Jarduketa posible moduan aipatzen ditu Ibarbengoako geltoki berriaren gunea, Arteagako sektore zaharraren gunea eta Sopelarekin eta Berangorekin mugakideak diren lursailak.

Honako hauek dira teknikarien taldeak proposatutako aukerak:

**T1 aukera**
- Lurzoru urbanizagarriaren hazkunde mugatua.
- Kontsolidazio bat planteatzen du, irlak / soilguneak betetzea eta "olio orban" modura haztea.

**T2 eta T2´ aukerak**
- Lurzoru urbanizagarriaren hazkunde mugatua.
- Proposatzen du Mariturriko gunean jarduera ekonomikoen sektore bat sortzea; hari atxikitako bizitoki gune bat ere aurreikusten du.
- T2 eta T2' aukeren arteko ezberdintasuna da etorkizuneko bizitoki sektoreen azaleraren kokapena.

**T3 eta T3´ aukerak**
- Lurzoru urbanizagarria handitzea.
- 2011ko etxebizitza kopuru berbera proposatzen du, baina lurzoru guztia agortu gabe.
- T3 eta T3' aukeren arteko ezberdintasuna da etorkizuneko bizitoki sektoreen azaleraren kokapena; lehena Kurtzes aldera kokatuta dago, bigarrena, institutu aldera..

Nabarmendu beharra dago aukera guztiek defendatzen dutela lurzorua hobeto eta modu eraginkorragoan erabiltzea. Ikuspegi

En los primeros paneles se muestran los planos de las siete (nueve con las complementarias T-2' y T-3') alternativas que se establecen en el Avance. Dentro de las alternativas que constituyen la documentación del Avance, se han incluido las cuatro alternativas del Lantalde y tres alternativas técnicas propuestas por el equipo redactor, con las dos variantes de las alternativas T2-T2' y T3-T3'.

Lantalde es el instrumento del Ayuntamiento para fomentar la participación ciudadana. En su día se creó un Lantalde compuesto por aproximadamente 70 personas que en diferentes sesiones de trabajo idearon 4 alternativas de desarrollo urbanístico:

**Alternativa L1**
- Mantenimiento del perímetro del actual suelo urbano
- Maximiza las posibilidades del parque inmobiliario actual a partir de la puesta en carga de toda la vivienda desocupada, facilita la división y conversión de áticos en viviendas y la rehabilitación de caseríos o viviendas en desuso, sin considerar nuevos ámbitos de desarrollo en el suelo urbano

**Alternativa L2**
- Mantenimiento del perímetro del actual suelo urbano
- El objetivo de nuevo es colmatar el suelo urbano y no clasificar suelo urbanizable

**Alternativa L3**
- Crecimiento limitado del suelo urbanizado
- Opta por desarrollar algunas unidades de ejecución y no clasificar suelo urbanizable.

**Alternativa L4**
- Ampliación del suelo urbanizado
- Señala como posibles actuaciones, el ámbito de la nueva estación de Ibarbengoa, la zona del antiguo sector de Arteaga y los terrenos colindantes con Sopelana y Berango.

Las alternativas propuestas por el personal técnico son:

**Alternativa T1**
- Crecimiento limitado del suelo urbanizado
- Plantea una consolidación, completar las islas/ calvas y crecer en "mancha de aceite"

**Alternativa T2 y T2'**
- Crecimiento limitado del suelo urbanizado
- Propone la creación de un sector de actividades económicas en la zona de Martiturri, previendo también un pequeño ámbito residencial anexo a ella.
- La diferencia entre las dos alternativas T2 y T2', reside en la diferente ubicación de la superficie de los futuros sectores residenciales.

**Alternativa T3 y T3'**
- Ampliación del suelo urbanizado
- Propone el mismo número de viviendas que en 2011 pero sin gastar todo el suelo
- La diferencia entre las dos alternativas T3 y T3', reside en la diferente ubicación de la superficie de los futuros

bakarretik ere ez da jasangarria 2001eko HAPOk gune batzuetarako xedatutako batez besteko eraikigarritasuna, legez ezarritako gutxiengoak betetzen ez dituena. Beraz, aukera guztiek defendatzen dute indarrean dagoen HAPOk egindakoa baino lurzoruaren okupazio txikiagoa.

Lurzoru industrialari dagokionez, etorkizuneko plangintzak Errotatxuren aldeko apustua egiten jarraitzen du industria nabeak eraikitzeko.

Azken finean, garapen aukerek bi hauen artean hautatzeko aukera ematen digute: ia dagoen moduan, eraikin gehiagorik gabe, geratuko den udalerri baten eta Andra Mariko edo Galeako inguruetan etxebizitzak eraikitzeko aukera emango duen eta pisu gehiago izango dituen aukeraren artean. Andra Mari da gune gustukoena aukeretan etorkizuneko hirigintza hazkundeetarako, baina kasu guztietan, planoen arabera, 2001ean onartutakotik oso urruti dago.

Horrela, egungo aukerak jasangarriagoak dira. Haien helburua da hiri inguruetan eraikitzea eta aisiarako guneak irekitzea puntu batzuetan, lurzoruaren erabilerak finkatzeko eta integratzeko, modu arrazional eta jasangarrian, auzoen kohesio sozialari laguntzeko.

Herritarren parte hartze prozesuan sortutako aukerak (L1-L4), aukera teknikoak (T1-T3) eta horien aldaerak gorabehera, bi proposamen egin dira, Getxoko udal mugartearen antolamendurako datu ez integralak ematen dituztenak.

**Andra Mari aukera**

Andra Mari Gure Lurra elkarteak aurkeztutako hirigintza jarduketaren proposamen bat da.

**ITF aukera**

Inguru fisikoa babesteko Getxoko Udalaren Ingurumen Foroak aurkeztutako aukera da. Talde idazleak prozesuaren hasieratik izan du harremana Udaleko ingurumenaren foroarekin. Bileretan, bai teknikariak, baita lantaldea ere egiten ari ziren lanak jakinarazi eta azaldu dira. 2014an, Foroak udalerriko ingurune fisikoa antolatzeko proposamena aurkeztu zuen, eta HAPOren bulegoak legeztatzen lagundu zuen. Horren ondorioz, proposamen planoa, memoria eta espezie aipagarrien taula eratu ziren.

Jatorrizko landaretzatik abiatuta, antolaketa bat proposatzen da, Ingurumenaren Hobekuntza kategoriarekin, masa horiek zabaldu eta (hobetzeko) guneak kolonizatzeko.

Horrez gain, proposatzen du Bolueko ibarra eta kostaldea konektatzeko igarobide ekologikoa mugatzea. Hala, udalerrian dauden natur espezieen banaketari jarraipena ematen zaio. Igarobidearen araudia eta kudeaketa HAPOan jaso daiteke, faunaren iragana kontserbatzen duten neurriekin. Gainera,

sectores residenciales, el primero hacia Kurtzes y el segundo hacia el Instituto

Cabe destacar que todas las alternativas propugnan un aprovechamiento mayor y más eficaz del suelo. Resulta insostenible desde todos los puntos de vista las edificabilidades medias ordenadas en algunos ámbitos por el PGOU del 2001 y que no alcanzan los mínimos exigidos legalmente. Así, todas las alternativas propugnan una ocupación de suelo menor a la realizada por el PGOU vigente.

En materia de suelo industrial el futuro planeamiento sigue apostando por Errotatxu como la zona donde se deben levantar las naves empresariales.

En definitiva, las alternativas de desarrollo dan para escoger entre un municipio que prácticamente se queda como está, sin nuevas edificaciones o la variante con más pisos que permitiría levantar nuevas viviendas en zonas de Andra Mari o La Galea. Andra Mari se señala como favorito en las alternativas para acoger futuros crecimientos urbanísticos, aunque en todos los casos, según los planos, estarán muy lejos de lo que se aprobó en 2001.

Así pues, las actuales alternativas son más sostenibles. Se enfocan en edificar en zonas urbanas y abrir espacios de esparcimiento en algunos puntos para consolidar e integrar los diferentes usos de suelo de una manera racional y sostenible, favoreciendo así la cohesión social de los barrios.

Con independencia de las alternativas elaboradas durante el proceso de participación ciudadana L1 a L4 y de las alternativas técnicas T1 a T3, con sus variantes, se han elaborado dos propuestas que aportan datos no integrales para la ordenación del término municipal de Getxo.

**Alternativa Andramari**

Es una propuesta de una actuación urbanística presentada por la Asociación Andra Mari Gure Lurra.

**Alternativa FLMA**

Es la propuesta de protección del medio físico elaborada por el Foro de Medioambiente del Ayuntamiento de Getxo. El equipo redactor ha tenido contacto con el Foro de Medioambiente Municipal desde el comienzo del proceso. Las reuniones han consistido en el traslado y explicación de los trabajos que se iban realizando, tanto por los técnicos como por el Lantalde. En 2014 el Foro presento una propuesta para la ordenación del Medio físico del municipio que la Oficina del PGOU ayudó a formalizar dando como resultado un plano de propuesta, una memoria y una tabla de especies relevantes.

Partiendo de esta vegetación original se propone una ordenación, con la categoría de Mejora Ambiental, que expanda dichas masas y colonice las áreas (de mejora).

gainjarri ostean, lurzoru ez-urbanizagarriaren kategoria desberdinetan gara daitezkeen jarduerak ez dira saihestuko. Igarobidea sortzeko, euskarri fisiko bezala sistema orokor hidraulikoa, hau da, Gobela ibaia eta Kanderu nahiz Larrañazuri/Bolua errekak eta Boluako hezegunea erabiltzen dira.

Behin aurkezpena amaituta, bilera gelara itzuli gara, eta eztabaida hasi da.

Xabier Buenetxeak aipatu du fauna eta flora espezie guztiak ondo aztertu behar direla. Gune ugari, gizakiak jarduerarik ez balu eta espezieak beren horretan utziko bagenitu, habitat bihurtuko lirateke. Horregatik dira ingurumena hobetzeko guneak.

Javier Loidi lasaiago dago, jakin ondoren garapen aukeretako edozein zentzuzkoa dela, indarrean dagoen plana eskandaluzkoa baita.

Koldo Nabaskuesek zoriondu egin du Argiñe Encinas, egindako aurkezpen argiagatik, eta azaldu du berak bizi izan zuela 2001eko planaren garapena, batzuk aurka zeuden arren oraindik ere etxe etzanak eraikitzen zirenekoa. Aukeretako edozeini ondo iriztsen dio, baina jarduera ekonomiko handiagoaren falta sumatu du. Argiñe Encinasek azaldu du jarduera ekonomikoa berariaz azaltzen ez bada ere, bateragarria dela etxebizitzekin.

Xabier Buenetxeak eta Koldo Nabaskuesek hurrengo urratsak zein diren galdetu dute. Argiñe Encinasek azaldu du orain politikariek irizpideen eta helburuen inguruko erabaki bat hartu behar dutela. Oro har ez dute aukera bat hautatzen, seguruena aukerak nahastuko dituzte. Espero da gobernu taldeak erabakia 2019 hasieran hartuko duela. Gustatuko litzaiguke hasierako onarpenerako lehen dokumentua urtebetean prest izatea. Beste behin jarriko da jendaurrean, parte hartu ahal izango da, une horretan alegazioak aurkeztu daitezke (ez iradokizunak, orain aurkeztu diren bezala), eta horrekin behin-behinean onartuko da plana. Argiñe Encinasek uste du bizpahiru urte igaroko direla behin betiko plana izan arte.

Indarrean dagoen HAPO 2001ekoa denez, legez eraiki daiteke urbanizagarri moduan kalifikatutako guneetan, nahiz eta plan berriaren aukera guztietan udalerriaren iparraldeko lurzoruaren zati handi bat desklasifikatzen duen. Sustatzaile batzuk saiatzen ari dira, eta, ondorioz, mehatxua egiazkoa da Azkorrin eta Andra Marin: erlojupeko bat da.

Argiñe Encinasek Foroko kideei eskatu die hemen eskuragarri dauden dokumentuak aztertzeko: https://hapo-getxo.eus/es/dokumentazioa eta beren iradokizunak eta iruzkinak astebeteko epean bidaltzeko Eugenia Atini.

**2.- 2018ko ekainaren 21ean egin ziren Ingurumeneko Toki Foroko bilkurei dagozkien aktak onestea.**

Aho batez onartu da.

Además, se propone delimitar un corredor ecológico para conectar el valle del Bolue con el litoral y así dar continuidad a la distribución de las especies naturales existentes en el municipio. La normativa y gestión de dicho corredor podrá ser recogida en el PGOU con medidas que preserven el tránsito de la fauna sin impedir las actividades que se puedan desarrollar en las diferentes categorías del suelo no urbanizable con las que este se superpone. Para generar el corredor se utiliza como soporte físico el sistema general hidráulico, es decir, el Rio Gobela y los arroyos del Kandelu y Larrañazubi/Bolue y el Humedal del Bolue.

Una vez finalizada la exposición, volvemos a la sala de reuniones y se abre el debate.

Xabier Buenetxea apunta a que debemos analizar bien todas las especies de fauna y flora. Existen muchos espacios donde si no hubiera actividad humana, si dejáramos a su aire a las especies, llegarían a convertirse en hábitats. Es por eso que son áreas de mejora ambiental.

Javier Loidi está más tranquilo tras conocer que cualquiera de las opciones de desarrollo son propuestas razonables ya que el Plan vigente es un escándalo.

Koldo Nabaskues felicita a Argiñe Encinas por su clara exposición y explica que él vivió el desarrollo del actual Plan 2001 cuando todavía se construían casas tumbadas aunque había gente que se oponía. Cualquiera de las alternativas le parece bien pero sí que echa de menos una mayor actividad económica. Argiñe Encinas explica que aunque no se señale específicamente como actividad económica, esta es compatible con la vivienda.

Tanto Xabier Buenetxea como Koldo Nabaskues preguntan por los siguientes pasos. Argiñe Encinas explica que ahora los políticos deben adoptar un acuerdo de criterios y objetivos. Generalmente no se decantan por una opción sino que probablemente mezclarán las alternativas. Se espera que el equipo de gobierno adopte el acuerdo a principios de 2019. En un año nos gustaría tener el primer documento para aprobación inicial. Otra vez se expone al público, se participa, se presentan alegaciones esta vez (no sugerencias como ha sido ahora), y con eso se aprueba provisionalmente el plan. Argiñe Encinas cree que pasarán 2-3 años hasta que tengamos el Plan definitvo.

Como el PGOU vigente es el de 2001 legalmente se podría construir en las áreas calificadas como urbanizables a pesar de que el nuevo Plan desclasifica una gran parte de suelo urbanizable al norte del municipio en todas las alternativas. Hay promotores que lo están intentando y por tanto la amenaza es real en Azkorri y Andramari, es una contrarreloj.

Argiñe Encinas solicita a los miembros del Foro que estudien los documentos que pueden encontrarse aquí: https://hapo-getxo.eus/es/dokumentazioa y que envíen sugerencias y comentarios a Eugenia Atin en el plazo de una semana.

**2.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del**

**3.- Galde-eskeak.**

Koldo Nabaskuesek galdetu du pinuen gaixotasuna nola ari zaien eragiten Getxoko pinuei. Galdetu du fumigatzerik aurreikusten den, eta horrek ingurumenean zein eragin duen. Gaixotasuna badago Bizkaian, eta, ondorioz, baita Getxon ere. Bizkaiko Foru Aldundia planteatzen ari da pinuak kobre oxidoz tratatzea, airetik, baina oraindik ez daki zer gertatuko den. Edonola ere, baimen berezia eskatu beharko litzaioke Gobernu zentralari. Zehaztu beharra dago zein zuhaitz motarekin ordeztuko diren pinuak.

Eugenia Atinek Foroko kideei eskatu die hurrengo saiorako hausnartzeko aurten Foroaren bileretan landu nahi diren gaien inguruan. Zentzu horretan, Jose Luis Landak gogorarazi du otsaileko bileran, Xabier Buenetxeak udalerriaren balio naturalak aurkeztu zituenean, erabaki zela bilera bat ematea gure parke eta inguru naturalen aberastasunari.

Foroaren hurrengo bilera 2018ko azaroaren 20an egingo da, eta horren aurreko astean bidaliko da deialdi ofiziala. Gogorarazi da gure bilerak egiteko asteko egun egokiena asteartea dela, nahiz eta Celia Marañonentzat egokia ez izan, asteazkenean bi pertsonak ezin baitute.

Getxon, 21:15ak izanik, bilkura amaitutzat jo da

**Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 21 de junio de 2018.**

Se aprueba el acta por unanimidad.

**3.- Ruegos y preguntas.**

Koldo Nabaskues pregunta por la enfermedad de los pinos y cómo está afectando a los pinos de Getxo. También si se prevé fumigación y cómo impacta ésta en el medio ambiente. Efectivamente la enfermedad también está en Bizkaia y por lo tanto en Getxo. La Diputación Foral de Bizkaia se está planteando el tratamiento aéreo de los pinos con óxido cuproso pero no se sabe todavía lo que va a suceder. En cualquier caso, habría que pedir autorización especial al Gobierno central. Lo que hay que determinar es el tipo de árboles que vendrán a sustituir los pinos.

Eugenia Atin pide a los miembros del Foro que para la próxima reunión se reflexione sobre los temas que queremos tratar este año en las reuniones del Foro. En este sentido, Jose Luis Landa nos recuerda que en la reunión de febrero en la que Xabier Buenetxea presentó los valores naturales del municipio se acordó dedicar una reunión a la riqueza de nuestros parques y entornos naturales.

La próxima reunión del Foro se celebrará en principio el 20 de noviembre de 2018 y se enviará una convocatoria oficial la semana anterior. Se acuerda que el día de la semana más indicado para celebrar nuestras reuniones es el martes pese a no convenir a Celia Marañon, puesto que el miércoles no conviene a dos personas.

En Getxo, a las 21:15 horas se da por finalizada la reunión.